



**2011KO UZTAILAREN 28KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako uztailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Arantxa Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2011ko ekainaren 11n eta uztailaren 6an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Eskatutako argibideak eman ondoren, Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- ALKATEAREN SOLDATA.-**

Alkatearen udal lanetarako liberazioaren inguruan, udal gobernu taldearen proposamena alkatearen liberazioa lansaio osokoa eta soldata gordina urtean berrogeita sei mila zortziehun eta hogeita zortzi (46.828 €) eurokoa izatearena da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du hausnarketa egitea eskatuko luketela gai honen inguruan eta aurreko legegintzaldietan alkatearentzako erabakitako soldata EUDEL-eko erizpideetan oinarritutakoa zela, eta erizpide horren barruko maila apalenean eta orduan jarraitutako erizpidea alkateari udalean maila handiena zuen funtzionarioaren maila batean gehituta jartzea izan zela, 26+1 maila. Gehitzen du erizpide hori mantentzea ona dela iruditzen zaiela eta hori dela eskatzen dutena. Bukatzen du esanez proposamen honen aurrean abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gobernuan zein dagoenaren arabera aldatuz joateko gaia ez dela izan behar alkatearen soldataren hau eta ez zaiela zuzena iruditzen aurrez jarritako erizpide orokor eta EUDELek finkatutako batetik beste batetara jotzea, erreferentzi orokor bat galduz. Gehitzen du abstenitu egingo dela.



Mendia zinegotziak (BILDU) esaten du beraien proposamena azterketa sakon baten ondorengo dela baita ere eta beraien iritziz ez alkatea ez zinegotzi bat udalera ez dela etorri behar ez dirua irabaztera eta ez dirua galtzera ere, eta lehen zein soldata zeukanaren arabera izan behar dela udalean jasoko duena.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (BILDU), aurkako boturik gabe eta 6 abstentzioz (EAJ, PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

#### IV.- TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN EKONOMI ASIGNAZIOAK.-

Talde politiko eta zinegotzien ekonomi asignazioei dagokionean, bere onarpenerako osoko bilkurara aurkezten den proposamena honako hau da: hilean talde politiko bakoitzari 200 €ko zenbateko finkoa eta dauzkan zinegotzien arabera 125 € gehiago zinegotzi bakoitzeko; zinegotzien asignazioei dagokioenean, zinegotzi soilari hilean 125 € eta batzorde informatzaileen bat edo gehiagoko presidente den zinegotziari 300 €. Alkateak soldata duenez ez du asignazio hau izango.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du aurreko bilkuran esan zutela haserakoz ondo iruditzen zitzaizela proposamena baina denbora gehiago behar zutela aztertzeko. Gehitzen du orduan esandakoarekin bat eta ikusita, aurreko egoerarekin alderatuta jeitsiera garrantzitsuak dakartzan proposamena izanik ere, EUDEleko erizpideak jarraituz egindako proposamena dela eta baiezkoa emango diotela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko osoko bilkuran esan zuena esango duela berriro, hau da, aurreko legegintzaldietatik errebindikatuz zetozena dela eta beraz ados daudela berarekin.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

#### V.- BATZORDE INFORMATZAILEETAKO PRESIDENTEEN IZENDAPENAK.-

Batzorde informatzaileetako presidentziei dagokionean, eta aurreko osoko bilkuran batzorde hauen sorrera erabaki eta batzorde hauen osaketa egin delarik, batzorde hauen presidentziei dagokienean udal gobernu taldetik ondorengo proposamena egiten da:

<u>Batzorde informatzailea</u>	<u>Batzorde-burua</u>
Partehartze, Komunikazio eta Gazteria Batzordea.	Urtzi Iruin Arruti
Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa Batzordea.	Kepa Goenaga Alikostes
Hirigintza Batzordea.	Azeari Andonegi Beristain
Gizarte Zerbitzua eta Inmigrazioa Batzordea.	Maialen Aldasoro Aranburu
Ingurugiroa eta lehen sektorea Batzordea.	Andoitz Garmendia Zubeldia





Berdintasuna eta emakumea batzordea.	Maialen Aldasoro Aranburu
Kirola Batzordea.	Haizea Mendia Iztueta
Hezkuntza, Euskara eta zerbitzuen sektorea Batzordea.	Arantxa Bengoa Gorosabel
Kultura eta festak Batzordea.	Haizea Mendia Iztueta

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek beste batzorde bat gehiago eskatu zutela, ekonomiaren ingurukoa eta ez zaiela hori onartu eta horren aurrean abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gobernu taldearen ahalmena dela batzordeak osatzearena eta beraiek oraingoz abstenitu egingo direla. Dena den beraien posizionamendua batzordeetako egunerokotasunean ikusiko dela hauen funtzionamendua nolakoa denaren arabera.

#### VI.- C.A.F., ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONARPENA.-

C.A.F., S.A.rekin izenpetutako hitzarmenean adostutakoarekin bat eta udal honek sustatuta, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1H.J.A.ko -C.A.F.- Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izeneko dokumentua idatzi da, eta udal osoko bilkura honetara aurkeztu da, honek bere hasierako onarpenaren inguruan erabaki dezan. Era berean eta Lurzorua eta Hirigintza arautzen duen 2/2006 Legearen 108. artikulua dioenarekin bat, aldaketa puntual honen inguruko partehartze programa aurkeztu da, udal osoko bilkurak onarpena eman dezaion baita ere.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du hitzarmena bai, batzordean aztertu eta asko landutako gaia izan zela, eta horregatik AA.SS.ren aldaketa puntual hau onartu egingo dutela baina dokumentua bera batzordetik ez dela pasatu eta pasatu egin beharko litzakela.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1. Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1H.J.A.ko -C.A.F.- Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala hasierako izaeraz onartzea.
2. AA.SS.en aldaketa puntual honi dagokion partehartze programa onartzea.
3. 20 eguneko denboraldiz jendaurreko erakustaldi tramitea irekitzea, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz, AA.SS.etako aldaketa puntual hau edozeinek aztertu ahal izan dezan eta alegazioak aurkeztu izan ditzan.

#### VII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Estensoro zinegotziak (EAJ) onartzen dutela kreditu aldaketa hau baina hemendik aurrera hausnarketa egin beharko dela aurrekontuaren inguruan, diru-sarrerak urriak izango dira eta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontua onartzerako garaian aurka edo abstenitu egiten badira ere, jarrera hori inbertsioetataik at dauden arrazoingatik izaten dela, eta kreditu aldaketa hau soilik inbertsioei ukitzen diena izanik, onartu egingo dutela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

### ERABAKI DA

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	160.000,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>160.000,00 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	160.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>160.000,00 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VIII.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO LANEN LEHEN OBRA-EGIAZTAGIRIA.-



C.A.F.eko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen lehen obra-egiaztagiria luzatu dute. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI-TA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMOTakoa (44.373,86 €) da. Lan hauek Construcciones Iturrioz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, C.A.F.eko urbanizazio lanen lehen obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

#### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik eta alkateak horretarako baimena eman ondoren, galdetzen dute ea alkate zinegotzi eta alderdi politikoen ekonomi asignazioen akordioarekin zenbatekoa izango den lortuko den gastuen jeitsiera aurreko egoerarekiko.

Alkateak erantzuten dio jeitsiera %27,62koa izango dela.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

